

'Aresti' izena du Lyongo Cervantes Institutuaren liburutegiak

Erredakzioa. Donostia.

Lyongo (Frantzia) Cervantes Institutuak Gabriel Aresti izena emango dio gaur hiri horretan duen liburutegiari, liburutegian egingo den ekitaldi ofizial batean. Henrike Knor eta Jose Luis Lizundia euskaltzainekin eta Jon Kortazar literatur irakasle eta kritikariarekin batera, Jorge Urrutia Cervantes Institutuko zuzendari akademikoa, Juan Manuel Garcia Ruiz Cervantes Institutuko Kultura zuzendariordea eta Domingo Garcia Cañedo Lyongo Cervantes Institutuko zuzendaria izango dira ekitaldian, Lyongo hainbat udal ordezkari eta unibertsitateko hainbat katedradunetz gain.

Henrike Knorrek euskal kulturaren inguruko hitzaldia egingo du ekitaldiaren amaieran, eta Jon Kortazar Gabriel Arestiren poesiaz mintzatuko da.

Lyongo Cervantes Institutuak Gabriel Arestiren poema batzuk euskaraz, frantsesez eta gaztelaniaz eskaintzen dituen liburua eman berri du argitara, Bilboko Udalaren laguntzaz ekoitzia. Jon Kortazarrek idatzi du liburuaren hitzaurrea.